

KOSTUAK

Gure enpresak, beste enpresa guztien bezala, produktuak ekoizteko, inbertsio bat burutu beharko da. Batez ere, garraioan, lehen gaien eskurapenean, ikus-entzunezkoak filmatzeko materiala, diseinuak arropan txertatzeko makinak... produktuak sortzeko lokaltxo baten beharrea geunden, baina Gorosen garajea erabiliko dugu diseinudun arropa sortzeko, obra txiki baten beharra bakarrik dago, guk geuk egin ahalko dugun obra. Hau gutxi balitz, enpresa eraiki eta urte batzuetara, denda fisiko bat ireki beharko dugu, horrek suposatzen duen langileen soldata kontuan hartuz.

Gure enpresari irudi ona emateko laburmetraiak filmatzerakoan, boluntario gisa, bidaia ere ordaindu beharko dugu, materialaren garraioarekin batera. Bertako erakundeekin elkarlanean gauden heinean, kostuak zertxobait murrizteko gai izango gara, diru inbertsioa zerbait txikituz. Alabaina, lehengo urtean ez dugu espero horrelako bidaiarik egitea, kostuak irabaziekin alderatuta oso altuak baitira. Urte pare batetara, laburmetraiak egin ahal izateko espedizioak egingo ditugu.

Garraioaren kostuak finkoak izango dira, funtsezko elkarteetan azaldutako itunetan oinarrituta egongo baitira. Garraioa lokala, hau da, Euskal Herri mailako garraioa, enpresaren eraketaren hasieratik izango dugunez, aurten hasi beharko gara ordaintzen. Aldiz, Espainia mailako garraioa, hemendik eta 3 urtetara ezarriko zen, itunean erabakitako balio ekonomikoa 2025ean ordaintzen hasi. Azkenik, nazioarteko garraioa 2028tik aurrera ezarriko dela ageri da itunean, beraz, urte horretara iritsi arte, zifra hori ez dugu kostuen baitan kontuan hartuko.

Hona hemen enpresaren sorreraren lehenengo urteko gastuak:

GASTUAK	DESKRIBAPENA	HILEAN	URTEAN
Lokalaren obra	Guk egingo dugunez ez da langilerik behar: Paretak margotu: 60€ Altzariak: 300€ Ur bero eta hotzaren instalazioa: 1.000€ Zirkuitu elektrikoa berriztea: 500€	155€	1.860€
Garraioa	San Jose Lopez S.A. garraio	600€	7.200€

	konpainia (Euskal Herri mailako garraioa, hileko): 700€		
Produktuen ekoizpenerako materiala	Inpresora textila: 1.690,37€ Tinteak: 40€	144,2€	1.730,37€
Laburmetraiak egiteko materiala	Kamera (gopro hero 9): 380€ Ordenagailua (Huawei MateBook): 530€	75,9€	910€
Lehengaiak	BORMAN enpresarekin ituna (hileko): 575€	575€	6.900€
Wifi sarea	Euskaltelekin kontratua: hileroko 15€ ordaindu beharrekoa	15€	180€
Copyright baimenak	13,20€ X diseinu kopurua 15 diseinu aurreikusita → 198€	16,5€	198€
GUZTIRA		1.581,6€	18.979,2€